

BANDOA (B23-2021)

EZOHIKO NEURRIAK ETETEA (COVID 19)

COVID 19aren egoera pandemikoa zela eta, uztailaren 16an Udalak igerilekuak, kiroldegia, Eztegara frontoia eta liburutegia ixtea erabaki zuen. Kirol ekitaldiak eta kulturalak ere bertan behera gelditu ziren, gutxienez uztailaren 26a arte.

Gaur uztailaren 26a, aipaturiko ezohiko neurria bertan behera gelditzen da, eta aipatu eraikin eta kirol instalakuntzak irekiko dira berriz, eta kirol ekitaldi eta kulturalak egiteko aukera ere izanen da.

Hala ere egoera pandemikoa ez da ona, beraz ohiko osasun neurriekin jarraitzeko deia luzatzen dugu: toki itxietan musukoa erabili; pertsonen arteko metro eta erdiko distantzia gorde; eskuak sarri garbitu; jende pilaketak ekidin.

Aditzera ematen dut, guztiek jakin dezazuen.

Bera, 2021-07-26.

SINADURA DIGITALA.
ALKATEA, Aitor Elexpuru Egaña